



BARREN
TOKIKOM



Zapalkuntzen kontra, aliantzak



TXARRIDUNA

JATETXEA
Ermuaranbide, 1
943 740 490
www.txarriduna.com



HOTELA
Ermuaranbide, 3
943 748 778
www.hoteltxarriduna.com



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskafnet.net



Azpigoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurraekin ere
lan egiten dugu.



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

Gremioen gida

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Segurtasuna

erabiltzen zuen bizilagunaren WiFi debalde, adibidez. WEPen arazoak konpontze aldera, WPA sortu zuten eta, ondoren, WPA2.

Itxuraz baina, KRACK (*Key Reinstallation Attacks*) izeneko segurtasun zulo bat topatu diote. Honen arabera, WPA2 dabilen edozein WiFi sareren segurtasuna ezin daiteke bermatu eta, potentzialki, norbaitek segurtasun zulo hori erabili dezake guk bidali edo jasotzen ditugun datuak ikusteko edo aldatzeko. Adibidez, gure bankuko webgunera konektatuta bagaude, bertako klabeak lapurtu ditzake, webgune batetako link bat beste bategatik ordeztu eta gure datu pertsonalak es-

katu (leku seguru batean gaudelakoan, eman egingo genizkiolarik. Dena den, honetarako, hackerra gure WiFira konektatu beharko litzateke (gure etxe ingurura etorri, adibidez, ala, errezagoa eta interesagarriagoa dena, WiFi publiko bate-tara konektatuz).

Eta zer egin genezake? Hainbat gauza. Batetik, gure gailu guztietan, ahal dela, sistema eragile, firmware eta abarren azkenengo bertsioak instalatu, fabrikatzaile gehienak segurtasun zulo hau konpontzen ari baitira beraien gailuetan.

Bestalde, denbora batez behintzat, ahal dela WiFi publikorik ez erabili. Gehienetan, gainera, sakeleko telefonoen konexioak hobek izaten dira taberna batek debalde emandako WiFirenak baino. Hauek erabili beste aukerarik ez badago, galdetu arduradunei, posible denean, ea segurtasun zulo hau konponduta daukaten.

Orain dela hamar bat egun irten zen berria: munduko WiFi sare guztien segurtasuna kolokan dago! Nola, baina? Gaur egun, WiFi sareetara konektaturik dauzkagu hainbat eta hainbat ordenagailu, telebista, sakeleko telefono, router eta, hauetako gehienak, WPA2 delako segurtasun eredua dabilte.

WPA2, hau da *Wifi protected access* protokoloaren 2. bertsioa, gaur egun gehien erabiltzen dugun sistema da. Orain dela zenbait urte WEP izeneko erabiltzen genuen, baina nahiko erraza zen hackeatzen eta, hala, jende asko

*“Munduko
WiFi sare guztien
segurtasuna
kolokan dago”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkaldun Lehenengo Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edune Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldeggi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OHARRA

Azaroaren 1eko jai eguna dela-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo alea azaroaren 10ean jasoko duzue.

BARREN

▶ IBON ETXERA, ETA BIZIRIK, ORAIN!

Ibon Iparagirre preso ondarrutarra muturreko egoeran dago Alcalako espetxean. GIB birusaz kutsatuta, C3 fasean dago. Horrek esan nahi du bere defentsak oso apalduta daudela une honetan. Gizaki arrunt batek 720 eta 1.150 artean izaten ditu normalean; Ibonek 20 ditu. Hala ere, epaileak ez du libre utzi nahi, eta espetxean jarraitzen du. Hiru urte daramate familiak eta medikuek esaten egoera jasanezina dela Ibonentzat, eta kalean behar duela. Espetxe-erakundeak (Instituciones Penitenciarias) otsailean adierazi zuen damaturik agertzen ez duten euskal presoak hil baino bi hilabete lehenago askatuko dituztela. Heriotz zigorra da, beraz, Iboni aplikatu diotena. Horrela ulertzen ditu giza eskubideak Espainiako Gobernuak. Egoera larri honen aurrean mobilizatzeraz deitzen dugu Elgoibarko jendarrea. Ibo-

nentzat espetxe araudiaren 104-4 edo 91.3 aplikatzea eskatzen dugu orain-txe bertan, etxeratua izan dadin. Hori eskatzeko giza-katea egingo dugu ostiralean, hilaren 27an, Maalako Parke-tik Kalegoen plazaraino, iluntzeko 20:00etan hasita.

Sare Elgoibar

▶ ORDUKO ZINEMAK

Gure ohiko jantziak praka motzak zirenean ez bat, ez bi, hiru zinema genituen herrian. Santa Ana kalekoak Odeon zuen izena. Harroena, zalantzarik gabe, bere neonezko argi-keinukariak piztuta gaueko saioetan. Errosario kalekoa aingirak eta barboez inguratutik zegoen, eta apalagoa zen. Azkena, Capitola, gaur egunean zutik dirauen bakarra. Izan ere, aurreko bietan porlana, eta herritarren dirua dago.

Niri orduko zinemen tamainak atentzioa ematen zidan. Hain ziren handiak, ezen inurri baten itxura hartzen baikenuen orduko egurrezko besaulki deserosoetan zuri-beltzean behin baino gehiagotan ikusitako filmetan. Eta luzera! Mutur batetik bestera gorengo futbol zelaien beste ez bazuten ere, ez ziren oso urruti egongo.

Niri, behintzat, hori iruditzen zitzaidan aurreko lerroetara lagunen bila neskatxoek aurretik igarotzen nintzenean, eta nire berlarrien atzean irrien kilika, eta pipa Facundoen azalen kraska entzuten nituenean. Hala eta guztiz ere, errugabetasun honen barruan ezin laga alde batera zenbait egunetan eginiko bihurrikeriak. Amamak emaniko aste saria motz gelditzen baldin bazen, zinemako sarreran lurtean sakabana natutako kolore beretsuko zatiak batzen genituen, gero, kola eta ilusioa erabiltzeko. Eskolako etxerako lanak baino denbora handiagoa erabiltzen genuen sarrera puskek itxura ona har zezaten, eta Olegario jabe ez zedin. Gero, elkar eza-gutu ez bagenuen moduan, ziurtasun eta seriotasun handia erakutsiz, eskutxoaren hatzamarretan begi bistan gelditzen zen zatitxoa dar-dar zegoela, aurrera egiten genuen. Dena den, gehienetan ikusi beharreko pelikula gutxienekoa zen. Berdin zigun Gari Cooperrek zein Sophia Lorenek lan egin ohi bazuten; kontua etxetik alde egitea eta ilunaren babesean egotea, horrek handiagoa egin ohi gintuen eta, orain ordukoa gogoratzeak txikiagoa egiten gaituen arren.

Juan Luis Mugertza Unanue



San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar
Koordenadak: 43.212760, -2.416292

ETXEBIZITZA ETA GARAJEEN HURRENGO ERAIKUNTZA **UBITARTEN**

943 31 65 86

INFORMAZIO
GEHIAGO

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

**grupo
LAZKANO**

Enfrentamiento
k hitzibon



1970

Porraz pasatzeko moduak asko izaten dira eta lagun talde honek abuztuaren hasieran elkarrekin ibilaldi bat egitea pentsatu zuten arren, asmoak ez ziren erabat bete. Etxegaraten abiatu eta Etxarri-Aranazen bukatu zuten bidea Urdiaindik pasatu ostean. Izan ere, han zerri batzuek beraiek eramandako jatekoa irentsi zieten eta ezer gabe utzi. Hala ere, Jon Ortuostek argazki honekin gogorarazi nahi izan du opor haietako pasadizoa. Hauek dira ibilaldi hura egin zuten lagunak:

Zutik: Manu Leizabe, Luis Valle, Jose Antonio Arrieta, Ricardo Gorriti eta Jose Benito Aranberri. **Behean, makurtuta:** Jon Ortuoste, Jose Luis Mujika, Ricardo Mujika, Jose Ignacio Jauregi eta Joseba Konde.

<p>Osasun gida</p> <p>Osasun gida</p>	<p>aldaz hortz klinikak</p> <p>RPS233/13 Tel.: 943 366 377 San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p>fisio&más Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea</p> <p>Trenbide kalea, 13 943 740 191 / 667 953 028 www.fisio-mas.com</p>	<p>federópticos ikus</p> <p>RPS 65/07 San Bartolome, 10 Tel.: 943 743 734</p>
<p>Jeku eder hortz klinika</p> <p>RPS 171/12 Elena Herrero Lobo Aita Agirre Enparantza, 5 20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel.: 943 530 053</p>	<p>RPS 271/12</p> <p>ainhoa fisioterapia</p> <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar 943 531 953 669 565 745</p>	<p>RPS 183/12</p> <p>Uzuri optika audio</p> <p>Elgoibar Tel.: 943 740 359 Deba Tel.: 943 192 192</p>	<p>NATUR HOUSE Ainara Iriondo Ansola GAZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA</p> <p>Torbis Etxebarria, 25 Eibar Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 030</p>

Felix Etxeberriak jasoko du 2017ko Gure Balioak saria, euskararen alde egindako ibilbide luze eta emankorragatik

Felix Etxeberria Larrañaga *Parapanek* (Elgoibar, 1926) jasoko du Debegesaren Gure Balioak Saria. Elgoibarko alfabetatze eta euskalduntzearen, ikastolaren eta Elgoibarko Izaarra Kultur Elkartearen sorreran eta garapenean "arima eta motorra" izan da, besteak beste; gainera, Danobat kooperatibaren sorreran ezinbesteko rola izan zuen eta, bertan lanean ari zela, Etxepe lantegia eratu zuen. Enpresa, hezkuntza, gizarte eta kirol arloan diharduten Debabarreneko 9 lagunek osatutako epaimahaiak erabaki du saria Felix Etxeberriari ematea, "bere ekimen eta izaera ekintzaileagatik, bai eta bizitza eta ibilbide profesionalean xede hartu dituen helburuak lortze aldera hainbeste lagunen lankidetzeta eta talentua erakartzeko, motibatze eta inplikatzeko gaitasuna erakustegatik, beti euskara eta euskal kultura ardatz izanik".

Epaimahaiak Felix Etxeberriaren figura azpimarratu du, bestalde, "euskalgintza-aren eta herrigintza-aren erreferente gisa", ez soilik Elgoibarren edota Debabarrenean,



baita eskualdetik kanpo ere, "etengabeko konpromisoa eta ahalegina eta erabateko dedikazioa erakutsi dituelako, beti musurruk eta eskuzabaltasunez jokatu".

Era berean, epaimahaiak beste hau ere nabarmendu du: "Zintotasunez, gogo handiz, ausardiaz, modu sortzailean eta ekimen berriei ekiteko ilusioz arlo ezberdinetan egindako lan emankorra, gizarte kontzientzia nabarmena erakutsiz kooperatibismoaren aintzindaritzan, lan munduan euskararen erabilera bultzatuz

edota memoria historikoaren berreskuratzean".

Sari banaketa azaroaren 9an egingo dute Mendaroko San Agustin Kulturgunean, 18:30etik aurrera. Ekitaldian Maite Maiora mendi korrikalariak hitzaldia eskainiko du, kirola eta balioak hizpide hartuta. Ekitaldiak DanobatGroup enpresaren eta Mendaroko Udalaren laguntza izango du. Saridunak Juan Luis Baroja Collet artistaren eskultura bat jasoko du, sari honetarako bereziki diseinatua.

Kultura eta jatorri desberdinetako bizilagunak bildu ziren zapatuan Maalan, munduko arrozak dastatzeko



Munduko Arrozak ekimena antolatu du Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak bigarren urtez, eta aurten hamalau herrialdeetako arroz errezetak dastatzeko aukera izan da: Errumania, Bolivia, Txina, Bangladesh, Ekuador, Maroko, Argentina, Nigeria, Portugal, Sahara, Senegal, Venezuela, Pakistan eta Euskal Herria. Zereal eta jaki unibertsala den arroza prestatzeko hamaika modu, beste hainbeste osagai, usain eta kolore daudela erakutsi zuten. Arroza prestatuz Elgoibarko aniztasuna bistaratzea, elkar ezagutzea erraztea eta integrazioa sustatea dira ekimen honen helburuak. Jendetza batu zen arrozak probatzera eta dena amaitu zen.

Bideoa eta argazkiak: www.barren.eus

Iñaki Jimenezen mataderak egiteko sistema saritu dute enpresa industrialen ideia lehiaketan, bere izaera eraginkorragatik

Enpresa Industrialen Ideia Lehiaketako sariak banatu zituzten astelehenean IMHko Asmaola Lantegian, eta aurtego edizioan Iñaki Jimenezen lana saritu du epaimahaiak.

Iñaki Jimenez tolosarrak Keyway izeneko proiektua aurkeztu du lehiaketarako. Engranajeen mataderak (txabeteroak) egiteko sistema eraginkorrago bat proposatzen du, zeinak mataderen kalitatea hobetzeaz gain, azkarrago ekoizten dituen. Jimenezek Txandakako Ingeniaritza ikasketak egin zuen IMHn duela sei bat urte, eta orain dela urtebete inguru, Keyway chaveteros izeneko enpresa sortu zuen beste bi bazkiderekin. Asteasun dago txabetero eta barne artekaketan mekanizazio prozesu berritzaileak eskaintzen dituen enpresa. Mataderak egiteko mekanizazio prozesua hobetzeko beharra eta nahia izan ziren, hain zuzen ere, enpresa hori sortzeko arrazoi nagusia, eta ideia hori bera aurkeztu zuen Jimenezek enpresa industrialen ideia lehiaketarako.



2.500 euro jasoko ditu eskudirutan, 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera, 100 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 300 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko (makinak...).

Gipuzkoak eta Euskadik munduan duten lekuaz jardun dute Ibarretxek eta Olanok Elgoibarren



Kultura da gakoa. Gipuzkoa eta Euskadi munduan izeneko solasaldia eskaini zuten Markel Olano Gipuzkoako Ahdun

Nagusiak eta Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak Herriko Antzokian. Euskara eta beste hainbat gairen artean, Kataluniako egoera ere izan zuten hizpide. Markel Olanok Kataluniak irakatsitakoa ekarri nahi izan zuen gogora. "Aktibatutako" gizartea ez dagoela gelditzerik esan zuen. Olanok Ibarretxeri ere eskatu zion gai honen inguruan duen iritzia. Ibarretxek erantzun zion, berarekin egin zuten moduan, Espainiako Gobernuak mailua darabilela kataluniatik datozen eskaerei irtenbidea emateko.

Hitzaldiaren amaieran galderak egiteko aukera izan zuten ikusleek, eta eszenatokitik jendartera jaitsita erantzun zituzten galderak Ibarretxek. Bukaeran, Mausitxako gazta bana oparitu zieten antolatzaileek hizlariei.

Jaime Arrese gogoratu dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan

37 urte bete ziren astelehenean Komando Autonomoek Jaime Arrese hil zutela. Elgoibarko alkate eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide izan zen Jaime Arrese, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide taldeetako ordezkariak elkarretaratze isil batekin oroitu dute Arrese aste honetan. Eider Mendozak presidentek lore-sorta ipini zuen eta bost minutuko isilunea egin zuten batzarkideek, Markel Olano ahdun nagusiak, eta erakundeko langileek.



▶ MARIBEL LOPEZ

OSI DEBABARRENEKO PEDIATRIA ERIZAINA
ETA EDOSKITZE AHOLKULARIA

Jaioberriaren lehen egunei buruzko hitzaldia antolatu zuen Maitasunez Hazi taldeak, Edoskitzearen Astearen barruan. Umea jaio eta lehenengo egun horietan dituen beharrei buruz hitz egin zuten, besteak beste, Maribel Lopez OSI Debabarreneko pediatria erizain eta edoskitze aholkulariak eta Patricia Del Rio OSI Debabarreneko pediatriak. Maribel Lopezek eman dizkio BARRENI jaioberriak eta amak egoera berri horren aurrean dituzten beharrei buruzko hainbat azalpen.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Zer hartu behar dugu kontuan jaioberriaren lehen egunetan?

Ospitaleko lehen egunak oso garrantzitsuak dira, eta ezinbestekoa da umeak, amak eta bikotekideak atsedean hartzea. Bizitzaren hasiera da jaioberriarentzat, ama sarri neka-neka eginda egoten da erditzearen ostean, eta atsedena behar izaten du. Ingurukoek bisitan joan nahi izaten dute, eta ez dira konturatzen lagundu baino gehiago oztupo egiten dutela. Aiton-amonak garrantzitsuak dira familian, eta haien laguntza askotan ezinbestekoa izaten da, baina ospitaleko bisitak neurrian egin behar dira. Jaioberriak heldu batanganako lotura landu behar du lehen egun horietan, eta heldu hori ama izaten da, batez ere. Lotura hori azala azalarekin kontaktuan jarriz lortzen da. Eta kontuan izan behar da umeek egunaren zikloa aldatuta izaten dutela, hau da, gautarrak direla. Gaez jaten dute gehienek, horregatik egunez atsedean hartzea ezinbestekoa da.

♦ Azala azalarekin kontaktuan jartzea aipatu duzu. Zertan datza?

Hainbat ikerketen arabera, azala azalarekin kontaktuan jartzeak amarentzako eta jaioberriarentzako onura handiak ditu. Esate baterako, amak umea soinean duenean hotz geratzen bada, amaren gorputzeko tenperatura igo egiten da, umea berotzeko. Horrez gain, umearen arnasketa, bihotzaren erritmoa edota gluzemia orekatzen laguntzen du, eta edoskitzeari sekulako mesedea egiten dio. Nolabait esateko, kanpoaldeko utero baten funtzioa beteko luke azala azalarekin kontaktuan egoteak. Amaren kasuan, erditze osteko depresioak gutxitzen ditu, oxitozina askatzen laguntzen du, eta amagandiko edoskitzea ondo joateko aukerak handitzen ditu. Zesarea kasuetan lehen bikotekidearekin egiten zen teknika hau, baina Mendaroko Ospitalean hasi gara zesarea kasuetan ere jaioberria amaren azalarekin kontaktuan jartzen. Orain arte ez geneukan horretarako leku fisiko egokirik, baina berrikuntzak egin ditugu, eta orain badaukagu horretarako aukera. Eta benetan konbentziturak gaude azala azalarekin kon-



Patricia Del Rio eta Maribel Lopez.

“Amaren esnea umearentzako lehenengo txertoa da”

taktuan jartzearen teknika garrantzitsua dela, jaioberriaren lehenengo orduetan bereziki. Eta argitu nahiko nuke ez dela ona soilik amagandiko edoskitzea aukeratzen dutenentzat, baizik eta edozein motako edoskitzearentzako onurak dituela. Formulako esnea ematea erabakitzen dutenek uste dute hobe dela biberioia etxeko beste edozeinek ematea, ama lasai egon dadin, baina hasierako egun horietan oso garrantzitsua da amak ematea biberioia, umearen eta amaren arteko lotura indartzeko.

♦ **Mendaroko Ospitalean garrantzia handia ematen diozue amagandiko edoskitzeari, onura asko dituelako. Zein dira onura horiek?**

Mendaron aspaldi hasi ginen amagandiko edoskitzearen aldeko apustua egiten, onura handiak dituelako bai umearentzat eta baita amarentzat ere, epe labur eta luzerako. Amaren esnea umearentzako lehenengo bakuna da, estreinako botika modukoa, horrek emango dizkiolako umeari oraindik garatu gabe dituen defentsak. Argi utzi nahi nuke emakumeen ia %100ek esnea izaten dutela eta oritza sortzen dutela, haurdunaldiaren propietatea delako. Badago portzentaje txiki bat arazo fisikoren batengatik ez daukana, baina gehiengoak badauka. Umea jaiotzen den unean bularrak estimulatzea behar du, eta estimulu hori umeak berak eragiten dio, bularra xurgatuz. Hasierako egunetan ume batzuk bularra xurgatzeko arazoak izaten dituzte, eta amei erakusten diegu esnea nola atera, estimulazio artifiziuala eragiteko. Inork ez dezala pentsatu berak ez daukala esnerik, eta amagandiko edoskitzea aukeratzen dutenek argi izan dezatela hori dela umeari eman ahal dioten onena.

♦ **Emakume batzuek ezin izaten diote umeari bularra eman, nahi izan arren, eta batzuk gaizki sentitzen dira. Ez al dago presio gehiegi azkenaldian amagandiko edoskitzearekin?**

Ez dakit presioa den, baina gu konbentziturik gaude hori dela bai umearentzako eta baita amarentzako onena. Garrantzitsua da haurdunaldian zehar ama ondo informatzea edoskitze aukera desberdinek dituzten abantaila eta desbantailei buruz, eta berak erabakitzea. Ama batek argi baldin badauka edoskitze artifiziialaren nahi duela, saiaturiko gara biberioia ondo ematen erakusten.

♦ **Ospitalean laguntza handia eskaintzen duzue erizainek erditu osteko lehen egun horietan, baina etxera joatean beldurak eta kezak sortzen dira. Zer egin daiteke une horretan?**

Ama eta umea etxera joan eta 24-48 orduren barruan emaginarekin kontsulta bat izatea oso garrantzitsua da. Horrez gain, laguntza taldeak eta edoskitze tailerrak daude. Elgoibarren, esaterako, Maitasunez Hazi taldeak egiten duen lana txapela kentzeko modukoa da. Ama izan eta lehenengo egunetan emakume asko oso galduta aurkitzen dira, eta talde hauek babes handia eskaintzen dute momentu horietan. Talde horietan konturatzen dira emakume asko gertatzen ari zaiena oso ohikoa dela eta ez daukela bakarrik. Klean entzuten dena normalean polita izaten da, baina hasierako egunak gogorak dira, gertatzen dena da hori ez dela klean kontatzen. Oso garrantzitsua da une zail horietan laguntza eskatzea, eta emaginak edota laguntza taldeak horretarako daude. Laguntza lehenbailehen eskatzea ezinbestekoa da.

♦ **Umeak eskatzen duen beste eman behar omen zaio bularra. Zer esan nahi du horrek?**

Bularra ematerakoan bereiztu egin behar dira lehen eguna,

bigarrena edo hirugarrena. Ume jaioberriak normalean orduro jaten du. Esne apur bat edan eta lo egiten du. Hori da beraien zeregina. Umeen urdaila oso txikia da, eta oritza libragarri edo laxante naturala da umearentzat, beraz, jan eta berehala kaka egiten badu, denbora luzez egon daiteke amaren bularra xurgatzen. Ume askok lo hartzen dute xurgatzen dauden bitartean, eta amaren bularraren ondoan zeruan baino hobeto egoten dira. Horregatik luzatzen da asko bularra hartzea. Hasierako egunetan bular-hartze bakoitza 40 minutukoa izan daiteke. Amak ere hasierako egunetan esne gutxiago izaten du, eta umeak denbora gehiago behar izaten du asetzeko. Egunak aurrera joan ahala, amak esne gehiago izango du, umeak indar gehiago eta bular-hartzeak arinagoak izango dira. Egunak aurrera joan ahala bular-hartzeak erregularragoak izan ohi dira. Umea negarrez ikusteak urduritasuna sortzen du, eta gainera, une horietan beti agertzen da inguruan norbait esaten umea gosez dagoela eta biberioia emateko, eta horrek are urduiago jartzen du ama. Baina bularra

ematea ezin da traumatikoa izan. Hasieran ume batzuei kostatu egiten zaie xurgatzea, nahiz eta hori den ugaztunetan elikatze modu naturalena. Baina ume asko uteroan estu egon ohi dira, edo erditzea gogorra izaten da batzuetan eta horrek guztiak eragina dauka xurgatzeko ahalmenean. Horregatik erakusten diegu amei esnea ateratzen, xurgatzeko gai ez diren ume horiei jaten eman ahal izateko. Eta orduak aurrera joan ahala, umeak ikasi egingo du xurgatzen.

♦ **Noiz arte komeni da umeari bularra ematea?**

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gomendatzen du sei hilabetez edoskitze eksklusiboa, hau da, amaren bularra soilik ematea umeari, eta hortik aurrera gomendatzen dute edoskitzea bi urtera arte luzatzea. 2 urtetik aurrera amak erabaki dezala noiz arte. Garrantzitsuenak lehenengo sei hilabeteak dira, baina gizarte honetan zailtasun handiak ditugu. Hasteko, amatasun baimena 16 astekoa da. Umeak 16 asterekin txikiak dira amarengandik banatzeko, eta ama batek sei hilabetera arte soilik bularra eman nahi badio, baimen bereziren bat eskatu behar du lanean, eta egun daukagun egoeran, hori ez dago guztion esku. Nola edo hala lortu beharko genuke amatasun baimena sei hilabetez izatea; espero dut politikariak egunen baten erabaki hori hartzea. OME bezalako erakunde batek ematen duen aholkua bete ahal izateko. Nire ustez, lanera itzuli eta bularra ematen jarraitzen duten emakumeak benetako heroinak dira. Horrez gain, lau hilabetez umea txikiak da amarengandik banatu eta ezezagun baten arduraren lagatzeko. Duela gutxi irakurri dut 2018tik aurrera bikotekidearen baimena bost astekoa izango dela, eta albiste oso ona iruditzen zait. Ez amari lagunduko diolako, baizik eta umearekin izango duen lotura sendotzeko beharrezkoa delako denbora.

“Nola edo hala lortu beharko genuke amatasun baimena sei hilabetez izatea”

Txikibarren

Zergatik aldatzen dute ordua?



Enara Cinto
(Mendaro, 7 urte)

Ez dakit zergatik. Inork ez dit esan zergatik, baina ez zait gustatzen, arratsaldeetan azkarrago joan behar izango naizelako etxera, azkarrago ilunduko delako. Hori da gutxien gustatzen zaidana.

Hodei Neu
(Mendaro, 7 urte)

Azkarrago egiten delako gava? Eguzkia edo ilargiagatik? Badakit, lehen, 22:00etan-edo egiten zela gava, eta orain, 20:00etan, eta horregatik, orain, 19:30erako joan behar izaten naiz etxera, alarma jarrita. Hori da txarrena.



Nahia Dacosta
(Mendaro, 7 urte)

Agintariren batek, gizon batek-edo, esango du ordua aldatzeko eta aldatu egin behar! Orain, gava luzeagoa izango da, baina eguna motzagoa, eta apur bat triste nago jolasteko ordu gutxiago izango dugulako. 22:00etatik 8:00etara egiten dut lo eta nahikoa da.



Nuhaa Furnier
(Mendaro, 7 urte)

Francok aldatu zuelako bere garaian, eta orain urtean bi aldiz-edo aldatzen dutelako. Orain, gava luzeagoa izango da eta ordu gehiago izango ditugu lotarako, eta niri hori gustatzen zait, lo egitea asko gustatzen zaidalako.



Danel Garcia
(Mendaro, 6 urte)

Ez dakit, erlojuak egiten dituztenek edo aginduko dute? Oraindik ez dugu oso ondo ikasi hori, baina badakit batzutan aldatzen dela ordua, aita ikusten dudalako erlojuak eguneratzen.



Elene Goikoetxea
(Mendaro, 6 urte)

Ez dakit. Hori ez dugu ikasi oraindik, baina badakit negua datorrela, eta horregatik, azkarrago iluntzen duela orain eta plazan jolasteko denbora gutxiago izango dugula. Lotarako ere pixkat denbora gehiago egotea goizetan ondo egongo litzateke.





Maddi Maiora (biloba)



Mauri Maiora (aitona)

Ameriketara joan. Beti Europa barruan egon naiz eta beste kontinente bat ezagutu nahiko nuke.

18 urte bazenitu, zer egingo zenuke?

Ene! Galdera zaila da hori. Ikasi egingo nuke. Lehen ez genuen horretarako aukera handirik izan eta.

Mendaro handiagoa egingo nuke eta adibidez supermerkatu handiren bat zabaldu edo.

Agintari bazina zer egingo zenuke?

Ez dakit ba zer esan. Lanik ez daukanari lana ematen ahaleginduko nintzateke.

Amari deitzeko etxean bakarrik nagoenean, eta asteburuetan, lagunekin gelditzeko.

Zertarako erabiltzen duzu sakelako telefonoa?

Emazteak beti telefonoarekin nabilela esaten dit, baina ez dut uste.

Etxean lasai egotea edo Errioxara joatea, hango lagunekin egotera.

Zer egitea gustatzen zaizu denbora librean?

Kirola egitea. Ez nago bizikletan ibiltzeko, baina nire martxatxoan mendi bueltak egitea gustatzen zait.

Bai, nire izeko Maite [Maiora]. Bidaiatzea asko gustatzen zait eta bera ikustera joatea gehiago.

Miresten duzu norbait?

Bat, behintzat, alaba. Izugarri ahalegindu eta sakrifikatu da, eta emaitza jasotzen ari da orain.

Biak, baina mendia gehiago.

Mendia ala hondartza?

Mendia, zalantzarik gabe.

Txokolatezko zerbait edo barritaren bat jan. Ez didate nahi beste ematen-eta.

Bestela egin ezin duzun zer egingo zenuke ilunpetan?

Argitan egin ezin dudan ezer ez nuke egingo ilunpetan.

Esna nagoela, txakurra izatearekin edo neba edo ahizpa txiki bat izatearekin ere bai.

Zerekin egiten duzu amets?

3.000 metroko mendi handiren bat igotzearekin.







Bazterrekoen irakasgaia

Elgoibartarrak dira sortzez eta izatez; euskaldunak eta feministak biak. Bietan gazteena, Ane Astiazaran (Elgoibar, 1994), itzultzailea da ogibidez eta Bartzelonan bizi da. Itziar Fernandezek (Elgoibar, 1950), berriz, Bilbon topatu du bere lekua. Oso gazte joan zen Bilbora, haur hezkuntzako zikloa egitera. Emakume kontzientziak eraman zuen horretara ere. Elgoibarren haurtzaindegia zabaldu nahi zuten, "emakumearen askapenerako", eta ikasi beharrekoak ikasi eta herrira itzultzea zen bere asmoa, baina ez da gehiago bueltatu; ez behintzat gelditzeko. Bilbon zabaldu zuten haurtzaindegi hura, euskara hutsez funtzionatzeko. Aldi batez hezitzaile aritu ostean, Zuzenbide ikasketak egin zituen eta ELA sindikatuan eta Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikotan egin zuen lan ondorengo urte askoan, harik eta erretiroa hartu zuen arte. Jaurlaritzan egin zuen tarte luze horretan, baina, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuten. 1988. urtea zen; Astiazaran, gaurko bere mintzalaguna, jaio barik zegoen artean.

Bi belaunaldi dira, nor bere atzea du, baina mundu-ikuskerara bera, hein handi batean. Feminismoan -edo feminismoetan, zuzenago izateko- topatu dute askeago sentitzeko giltza eta zapalkuntza-molde ezberdinekin enpatizatzen laguntzeko argia. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Euskara sailek antolatutako 'Euskalgintza eta feminismoa, eskutik helduta' zikloaren harira batu ditugu, eta solasaldiak eman duenaren laburpen bat duzue hau.

- AINARA ARGOTIA -



ITZIAR FERNANDEZ

EUSKALTZALEA ETA FEMINISTA



ANE ASTIAZARAN

EUSKALTZALEA ETA FEMINISTA

◆ **Emakume izatea eta euskalduna izatea. Zentrotik eta hegemoniatik kanpo daude biak. Noiz konturatu zineten emakume zinetela? Noiz euskaldun zinetela? Zuen buruetan zer dago aurretik?**

Itziar: Harrokeria litzateke nik euskaltzalea naizela esatea, sekula ez dudalako euskalgintzan lanik egin. Euskalduna naiz, eta nagoen lekuan beti egiten dut euskaraz egitearen alde, baina gustatuko litzaidake argi lagatzea ez dudala sekula euskalgintzan militatu. 21 urterekin ez nekien euskaraz. Ama Itziarkoa eta aita Trebiñukoa genituen, baina El-

goibarren ez zen orduan euskararik egiten. Euskararekiko kezka moduko bat barenen nik neuk aurretik ere, baina ez nuen biderik izan 21 urte bete aurretik euskara ikasteko. Hori bai, 23 urterekin, haurtzaindegi bat zabaldu genuen Bilbon, euskara hutsean; neu izan nintzen lehenengo hezitzailea.

Ane: Itziarrek bizi izan duenaren oso bestelako egoera bizi izan dut nik: familia euskaldun batean jaio nintzen, kasualitatez -bai, kasualitatez- lagunekin euskaraz egin dut ume-umetatik eta Elgoibarren nire zirkulua guztiz euskalduna izan da. Horregatik, beharbada, ni

askoz lehenago jabetu nintzen euskaldun izateagatik jasaten nuen zapalkuntzaz emakume izateagatik jasaten nuenaz baino. Hizkuntza tresna denez, nik uste dut zapalkuntza ebidenteagoa dela, tresna hori erabiltzea ukatzen ditudenean. Emakume kontzientzia beranduago hartu nuen. Ez da ebidentea ez dela, baina estruktura heteropatriarkal honek egiten du horren ebidentea ez izatea. Beraz, nire buruan klik hori egin arte ni ez nintzen konturatu emakume izateak zer zekarren.

Itziar: Jakina, berdintasunaren aparienzian bizi garelako. Nik kontrara bizi

izan dudala uste dut. Umetan konturatu nintzen emakume izateak bigarren mailako egiten ninduela. Etxeko giroan bertan ere ikusten nuen [hiru neba-arreba izan dira: bi mutil eta bera], eta zer esanik ez beste esparruetan. Egiteko ezberdinak genituen emakumeok. Nolanahi ere, esango nuke identitatea, bere osotasunean, ez dela kontu estatiko bat. Hainbat identitatek eraikitzen gaituzte, eta nire kasuan, feminista izateak elikatzen du nire izate euskaltzalea, eta alderantziz. Are gehiago: feminista naizelako euskaltzale "kontzienteagoa" naiz, eta euskalduna izateak, alegia, hizkuntz zapaldu baten hitzun izateak, aukera ematen dit egunerokoan unibertsalismo faltsuaren -aparentziaren- zantzuak bistaratzeko. Hemen, sistemaren egia unibertsala klase sozial jakin baten gizon zuri gaztearen gainean erakitzen da, eta hortik kanpo gelditzen garenok sistemaren bazterrak gara. Beraz, nire kasuan ez dago bat bestearen gaitetik. Biak dira nire izaeraren funtsezko osagai. Pertsona naiz ni beste ezeren gaitetik, eta baita emakumea, euskalduna, feminista eta, nahi baduzu, euskaltzalea ere bai, ordena edozein dela ere.

◆ **Angela Davisen zapalkuntza hiru-koitzaren teoria, beraz.**

Itziar: Bai. Guztiz ados nago Angela Davisekin. [Emakumea, beltza eta klase sozial apalekoa izateak dakartzan hiru zapalkuntzak lotu zituen, eta oraindik interseksionalitatea aipatu ere egiten ez zen garai batean, menderakuntzak elkar elikatzen direla esan zuen, eta aliantzatik egin behar dela borroka].

◆ **"Kasualitateari hiru dohain zor dizkiot: emakume sortu izana, klase apalekoa eta herrialde eta kultura zapaldukoa, eta hiru bider errebelde izateko aukera eman izana", zioen Maria Merce Marçal poeta katalanak. Ia ba, hegemoniatik kanpo bizitzeak, minorizatu izatearen kontzientziak, zer irakasgai eman dizue?**



Itziar: Bat nator Maria Mercerekin. Oso nekagarria da, baina injustizia ikusteko bidea ematen dizu bazterreko izateak. Batez ere, barren-barreneko enpatia gartzen duzu edozein esparrutan gutxietsita daudenekiko. Minorizatu izateak, batetik, aktibismoaren kemena ematen dizu, gauzak aldatzeko sekulako gogoia, eta bestetik, gizartearen konplexutasuna ulertzeko gakoak ematen dizkizu. Ez dituzu gauzak horren sinpleki ikusten, ezta bizi ere.

Ane: Bai, hori da. Izaera kritikoa lantzen

duzu, halaber, eta era berean, kolektibotasuna ere lantzen duzu, zapalduak errazago ulertzen dituelako zapalkuntza-moldeak eta errazago bilatzen duelako antzeko egoeran daudenekin batzea eta elkarrekin gauzak egitea.

◆ **Ez da edonolako ikasgaia. Pribilegiatuak gu!**

Itziar: Benetan ba!

Ane: Dudarik gabe. Pentsa zenbat gauza galtzen dituzun eroso bizita! Zelako duintasunarekin hitz egiten duen Davisek.

♦ **Euskara eta berdintasun teknikariak “mosketero” bakarrak dira instituzioetan, sarri sail bazterrekoak. Irakurria diot Berdintasun teknikari bati ‘ez kezkatu, gu beti egongo gara okerrago’ esanez kontsolatzen zituztela Euskara Sailekoak. Emakunden ibilitakoa zara zu, Itziar. Zer duzu esateko? Nola oraitzen dituzu Emakunderen hastapenak?**

Itziar: Beste garai bat zen. Feminismoa deabrua zen orduan, gizarte patriarkalak bere une gozoena bizi zuen eta ez zegoen lotsarik feministen kontra edozer esateko. Emakunde bera ez zen sortu orduan agintzen zutenen gogoz, baizik eta emakume talde baten ekimenez. Emakundek aukera eman zigun frogatzeko posible zela feminismoa erakundeetan sartzea. Legeak ez zuen ezer esaten gai honen inguruan eta egin genezakeen Emakunde asistentzialista bat, baina ez, guk argi ikusi genuen generoaren gaiak transbertsala izan behar zuela eta egon behar zuela sail guztietan. Eta lortu genuen errespetua, baina ez zen/ez da nahikoa. ‘Egin behar da’ ‘bai, arrazoa daukazu’ esaten digute, baina egin ezean hori ez da nahikoa. Eta bai, euskara eta berdintasun teknikariek lan zaila dute oraindik ere, boterea duten sailak beste batzuk direlako, eta zuk besteek egin dezaten lan egin behar duzulako, bakardade handian. Dena den, uste dut asmatu genuela Emakunde den bezalakoa sortuta.

♦ **Baina oraingoa ‘mosketero’ sentitzen badira, zuek zer izan zineten?**

Itziar: Egin zitezkeen txantxa guztiak egin zizkiguten guri, baita gobernuko goi karguek ere. Arraroak ginen eta askotan ez zuten jakitzen gu nola tratatu ere. Momentu bereziak izan ziren. Egia esateko lehendakariak [Jose Antonio Ardanza] nahikoa lagundu zigun. Emazte feminista du, eta antzematen zen hori. Eginahalak eginda, baina, aurrera egin genuen, eta lehenengo momentutik ikusi genuen oso argi gizartean sortzen ari ziren taldeekin lan egin behar genuela

“Hemen, sistemaren egia unibertsala klase sozial jakin bateko gizon zuri gaztearen gainean eraikitzen da; besteok bazterra gara”

eta horrek asko aberastu gintuen.

♦ **Zu beste belaunaldi batekoa zara, Ane. Zer duzu esateko Emakundez?**

Ane: instituzioetan egin duen lanaz ez daukat gauza asko esateko, ez dudalako haren lana ezagutzen, baina garbi daukat gure aurreko emakume guzti hauek egin dutenari esker gaudela gu gauden lekuan eta oraindik egiteko asko badago ere, oinarritzko eskubideak hauei zor dizkiegula. Mundua aldatzen ez gara gu ari. Mundua bazetorren jira-bueltaka eta gu aldaketa horren parte izango gara.

♦ **Emakunde nahikoa da, Itziar?**

Itziar: Ezta pentsatu ere. Emakunde tresna bat da, eta gainera, erakundeei begira sortutakoa. Gizartean mugimendurik ez baldin badago, Emakunderen eragina hutsaren hurrengoa izango da. Asko gustatu zait, edonola ere, Anek esan duena. Nik miresten ditut gure aurrekoak. Sufragistarik gabe gu ez ginen gu izango. Frankismoa tokatu zitzaigun guri, historiako aro ilun-ilun hori, baina guk izan genuen zeri heldu. Hari bat bota ziguten aurrekoek, eta hari helduta ari gara denok.

♦ **Eta orain zuri, Ane. Feminismoak indar handia hartu du. Jende gazte asko batu da feminismora eta maila teorikoan ere asko hazi da. Euskalgintzan, berriz, halako apalaldi moduko bat bizi dugu, eta gazterik ezin erakarrira dihardugu. Zer gertatzen da? Zer ikasi genezake elkarrengandik?**

Ane: Ez dakit, ez daukat soluziorik. Iru-ditzen zait feminismoak baduela zerbait bizitza aldatzen dizuna. Begiratzeko

modu bat da, kritikoa, arlo guztietan aldatzen zaituena, batez ere pertsonalean, eta badu zerbait engantxatzen zaituena. Ni, Disney ikusten hazi naizen hau, kapaza izan banaiz hori dena zailtzan jarri eta nik izan nahi dudan ni hori eraikitzen hazteko, pentsa!. Esango nuke ni bat eraikitzen ari zirela, eta feminismoari esker, orain bitartekoak daukadala nik nahi dudan ni hori eraikitzen hasteko. Eta era berean, baliabideak eman dizkit pertsonala zela uste nuena politikoa dela ikusteko. Euskara gehiago ikusten dugu tresna gisa. Elgoibarren, talde feminista bat sortzen bada, euskalduna izango da eta euskara erabiliko du. Eta jakina, euskaraz egiten dugunez euskararen kupoa beteta ikusten dugu. Euskara erabiltzen dugu, eta ez dugu beharrik ikusten euskararen alde militatzen hasteko.

♦ **Lasaitu egin gara?**

Ane: Bai.

Itziar: Egoera soziolinguistikoaren araberakoa dela esango nuke. Ongi etorri errefuxiatuak plataforman dihardut Barakaldon, baliabide handirik gabeko taldean, eta zerbait argitaratu behar denean, beti ibili behar izaten gara euskaraz egiteko eskatzen Komunikazioaren aitzakian, euskara alboratuzeko arriskua handia da. Eta horregatik esango nuke Bilbo ezkerrean euskalgintzan lanean dihardutenek horren kontzientzia handiagoa dutela Azpeitia baten dihardutenen aldean. Militantzia handiagoa da han, halaberrez.

♦ **Zer ikasi dezake euskalgintzak feminismitik?**

Ane: Beti dago zer ikasia eta elkarrengandik ikasi ahaliko dute ziurrenik, baina garbi dago Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak antolatutako hitzaldi guztiak oso lagungarri direla, aliantzak sortzeko.

Itziar: Nik uste dut euskalgintzak bereziki feminismitik eta ekologismitik daukala ikasteko. Sufragistek erakutsi ziguten posible dela borroka baketsu eta kultu-

rala egitea gauzak "teorian" izan behar duten horren kontra. Hizkuntzarekin, gerta dakiguke pentsatzea oztopoak gainditzea ezinezkoa dela, baina garbi izan behar dugu denok dugula zeregina normaltasuna lortzeko. Hasteko, euskaraz egitea. Horixe da gure eginbehar nagusia. Keinu xume horrek gauza asko eragin ditzake, eta denon keinuak zer esanik ez. Bestetik, ekologismoak erakusten digu bizitzak ezingo duela iraun dugun aniztasuna errespetatu ezean. Naturan denok gara beharrezkoak, iraun ahal izateko ezinbestez lortu behar dugun oreka lortzeko. Eta jakina, hizkuntza guztiak, handiak zein txikiak, dira beharrezkoak.

♦ **Feminismo terminoaren inguruko errezeloak errezelo, irudipena daukat genero berdintasuna bilatzen duten politiken kontra egiteak lotsa sortzen duela, baina aldiz, euskararen kontra egiteak ez duela itxura batean horrenbesteko lotsarik eragiten. Zergatik dela uste duzue?**

Itziar: Itxurakeria dago hor, neurri handi batean. Genero politikak onartzen dira, baina martxan jarri behar direnean beti daude oztopoak, trabak. Nolanahi ere, bai, zuk esan duzun horretatik ere baba dago. Zergatik? Alde batetik, emakumeok gizartearen erdia garelako. Giza-errealitate hori ezin du inork ukatu eta horrek eragina du instituzioen politikan. Labur esanda, emakumeak "gizar-tearenak" gara, eta euskara, aldiz, bakar batzuen bailitzan ikusten da. Ez luke hala izan behar, euskara denona delako, baina praktikan, gaztelania nagusi den gizar-te diglosiko batean bizi garenez, batzuek baldintzatuta sentitzen dute euren burua eta ez dute ikusten euskaldunok egunero bizi dugun eskubide urraketa. Garbi dago, bai, berdintasunaren kontra egiteak ez diola inori botorik emango eta zenbait alderdik ondo zaintzen dute hori, antzeman ez dadin egiaz egitura tradizionalei eutsi nahi dietela, androzentrismoa ardatz hartuta. Euskararen kontra egiteak, baina, zoritxarrez ematen ditu boto batzuk herri ho-

netan, euskaraz jakin ez eta gainera jakin nahi ez duen jende talde bat erasotua sentitzen delako gure aldarrikapenekin.

Ane: Guztiz ados, baina zuk esan duzun hori bera ere zalantzan jarriko nuke, zenbait kontutan. Inork ez du txalotuko gizon batek bikotekidea hiltzea, baina jende askorentzat genero politikak indarkeria matxistaren kontrako borrokara mugatzen dira. Eta haziz gero gai batzuetan atzaparra sartzen... Orduan, kontuak! Jendeak -izan gizon nahiz emakume- beldurra dio feminismoari, batzuek zenbait pribilegio galtzeko arriskua ikusten dutelako eta beste askok -emakume asko tartean- beldurra edo pereza dietelako dena zalantzan jartzen haste horri, egitura oso bat dudan jartzea nekagarria delako, deserosoa. Emakume izateak ez dakar berariaz feminista izatea, joera naturala horrek izan beharko lukeela iruditzen zaigun arren. Guztiz gizar-te patriarkala da gurea, eta oso mamitua daukagu egitura hori; zapalkuntzaren kontzientzia ere hartu egin behar da, eta behin, buruan klik hori egin dugunean, ikasitako guztia alboratu eta hutsetik ikasten hasi behar dugu.

Itziar: Jakina, Ane. Baina zuk zeuk esan duzu. Ez da erraza miseria guztiak erakutsiko dizkizun ispiluaren aurrean jartzea. Zerk geldiarazten gaitu beti? Bada, beldurrak. Feminismoak aske izateko bitartekoak jartzen dizkigu eskura, baina deseraiki eta eraikitzeko prozesu hori ez da erraza. Begira, nik jasan dudan gorroto handiena Alardean jasan dut, eta neska oso gazteengandik. Ikaragarria da, baina sistema heteropar-

"Inork ez du txalotuko gizon batek andrea hiltzea, baina haziz gero atzaparra sartzen beste gai batzuetan... Orduan kontuak!"



triarkal horren barruan bizi dira.

♦ **Hortaz, deserotasunean bizitzen ikasi behar dugu, eta Mari Luz Estebanek dioen moduan, pentsatu beharko dugu sanoa dela.**

Ane: Bai, eta deserotasunean bizitze hori pizgarri bat izango da pentsamen-dua akziora eramateko.

Itziar: Ni ados nago. Euskalduna bazara, zintzoki euskalduna, ezin zara eroso egon inguruan egiten diren astakeriak ikusita. Ezin zara lasai gelditu gazteak erdaraz ari direla ikustean edota administrazioek euskararen eta oro har euskal kulturaren aurretik ingelasa lehenesten dutela ikustean. Euskaltzalea bazara, derrigor egon behar zara kezkatuta, eta are, euskara lehenetsi dezatela exijitzeko beharra sentituko duzu.

♦ **Maialen Lujanbiok esan zigun euskaldunok ezin ginela uneoro elebakarrak limurtzen aritu; hizkuntza politikek derrigor izan behar zutela deserosoak batzuentzat. Hautsak ha-**



rrotu izan dira, baina, egin diren apustu apurretan. Non dago oreka? Beharrezkoa da oreka bilatzea?

Ane: Niretzat argi eta garbi pauso hori eman egin behar da, prentsaurrekoak euskara hutsean egiten hasi behar da, aurreko legealdian Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen bezala. Orain den momentua edo hemendik hogeitaz urtera izango den ez dakit, baina dakidana da ematen den egunean hautsak harrotuko direla berriz. Euskara lehen leerroan jarri behar da, euskarari duen garrantzia eta balioa eman behar zaizkio, eta horretarako, ezinbestekoa da politika ausarta egitea. Horrek ez du esan nahi, gainera, gaztelania alboratzen denik, prentsaurrekoetan mila modu daudelako elebarrak haria jarrai dezaten. Horretarako daude itzulpen zerbitzuak eta mila gailu edo trepetak. Nire ustez, ia egin beharreko kontua da. Zergatik sentitu behar du euskaldunak beti deseroso bere herrian? Zergatik sentitu behar du

intransijente euskaldunak, bera elebidun izanda?

Itziar: Bat nator zurekin. Horrek behar luke izan ideala, baina errealitatea beste bat da. Nik uste dut tokian-tokian aztertu behar dela zein estrategia erabili. Ez da gauza bera Azpeitian edo Barakaldon bizi. Eremu erdaldunetan jendea euskarara erakartzea izan beharko litzateke euskalgintzaren helburu nagusia. Pizgarriak behar ditugu. Jakina, euskaratik ekarri behar ditugu gurera, baina arbuia-penak saihestuz. Arnasguneak garrantzitsuak dira, bai, baina euskarak ezingo du soilik arnaguneekin aurrera egin. Horretan ere genero berdintasunaren *manstreaming* deitutako estrategia transbertsala baliogarria izan daiteke. Euskararen aktibismoak transbertsala izan behar du. Nolanahi ere, iruditzen zait euskaraz eta euskaratik egin behar dugula gehiago, eta bilatu behar ditugula gure erreferenteak, gero eta euskaldun gehiago gaudelako, baina askoren erre-

ferenteak ez daudelako euskal kulturari, eta lehen hizkuntza euskara ez dutenei ere eman behar dizkiegulako erreferenteak, modu erakargarrian. Feminismoan ere gertatzen zaigu hori: erreferente eskasia.

♦ Arbuia-penak saihestu diozu, Itziar. Ez al dira politika denak inposatuak, eta kasu askotan, deserosoak zenbaitzarentzat? Zergatik larritzen gaitu horrenbeste euskaldunok hizkuntza politika jakin bat zehazteak?

Itziar: Ondorioa kaltegarria izan daitekeelako. Gertatu izan da noizbait, Jaur-laritzako Hizkuntza Politikarako Sailak halako itzuli bat egin duenean. Halakotan ikusi da bide horretatik ez goazela ondo. Dena den, nik gai honi buruz ez daukat irizpide garbirik, ez dakit zein den hizkuntza politika eraginkorragoa. Eraginkor izatearen kontua bera dago horren atzean, eta horren inguruan etentxo bat egin nahiko nuke gogorarazteko eraginkor izan nahi hori, ahalik eta

jende kopuru handienarengana iritsi nahi hori, arriskutsua ere izan daitekeela. Askotan gaztelania aukeratzen delako mezu "nagusiak" komunikatzeko, eta euskara "apaingarri" gisa baino ez delako erabiltzen.

♦ **Ados. Euskal Herria askotarikoa da eta eredu soziolinguistiko berdinak ezin dira aplikatu, baina zeintzuk dira onartu beharreko gutxienekoak?**

Itziar: Euskararen eta euskal kulturaren (eta ez bakarrik folklorea) ezagutza, erabilera eta transmisioa bermatzea, eta horretarako, jakina, euskara eskolak debalde izatea. Eskatuko nuke papelean jasotakoa eramatea praktikara, eta behin hori eginda, joango gara, poliki-poliki, tokian tokiko ezaugarrietara doitzen.

Ane: Hizkuntza politikan, nire jarrera muturrekoagoa da nolabait esatearren, baina hori alde batera lagata iruditzen zait herrietan hasi behar dugula lanean. Txikitik handira egin behar dugu hemen. Saiatuko nintzateke herri baten herritarren ahalik eta ordezkaritza zabalena biltzen, haiek erabaki dezaten herriari zer datorkion hobeto, eta hor adostuta

koa aplikatzea Udalean. Azken batean hori da feminismoan egiten dena. Oinarri soziala landu behar dugu, hori irabazi. Zaila da, jakina, herritarren inplikazioa, parte-hartzea eta konpromisoa, eta baliabideak behar dira, eta momentu jakin batean, batzuek prest agertu beharko dute gainera euren pribilegio batzuk alboratzeko, taldearen onerako.

♦ **Gertatuko zitzaizuen ba noizbait elebakarren batek intransijente deitzea edo sentiaraztea eta feminista izanda, gizonen eskubideak zapaltzen aritzea leporatzea, ala?**

Ane: Bai, baina talde minorizatuek beti jasotzen dute halako kritikaren bat euren eskubideak aldarrikatzen dituztenean. Baina garbi daukagu alderantziz dela. Duda bat ere sortu izan zait galdera honen bueltan, hala ere: Izan daiteke zapaldu bat zapaltzaile aldi berean?

Itziar: Jakina izan daitekeela. Sistema kapitalista honetan oso ohikoa da. Klaseak ez ezik, rolak ere nahasten dira batzuetan hor. Gure gizartean beste hizkuntza gutxitu batzuk ere badaude, baina haiekiko euskaldun bat izan daiteke zapaltzaile. Eta berdin feminista bat

bere guraso edadetua zaintzeko hartu duen emakume etorkinarekiko.

Ane, esan dugu emakumeak gizonarekiko lege berdintasuna lortu duela, baina legeak orban batzuk ere baditu. Hor daukagu lehen aipatu duzun Alardearen kontua. Zu bezalako neska gazteak edo gazteagoak irainka entzun-ikusi ditugu. Zer diozu?

Ane: Ezin dezaket ulertu. Lotsa, beldurra, inpotentzia, ezin-ulertua, amorrua... horiek denak eta gehiago sentitzen dut.

♦ **'Zuk ez duzu ulertzen, ez zarela hemengoa', esango dizute hondarribiar edo iruindar batzuek.**

Ane: Bainak ortuan eta bere sasoian. Horrek ez du ez hanka ez bururik. Arazo hori ez da bi herri horietara mugatzen. Hor eskubide urraketa bat dago eta denok dugu zeresana. Erantzukizuna denona da.

Itziar: Emakunde utzi nuenetik, urtero desfilatzen dut alarde mixtoan, eta bengan diotsut hor bizi izan dudana gorrotoa ez dudala beste inon eta inoiz sentitu. Batzuk konturatuko dira noizbait, baina beste batzuk ez, ez dutelako ispiluan begiratzeko adorerik bilduko. Alardean ere



badago klasearen kontua, bestalde. Hor, estatusak zeresan handia du, askok uste ez arren.

♦ **Esan dugu hizkuntzaren kontuan ere halako normalkuntza bat lortu dugula, eta nago ustezko normalkuntza horrek kalte handia egin digula. Ez zaizue iruditzen permisibitatearen kontra egitea zailagoa dela debekuaren kontra egitea baino?**

Ane: Bai, askoz. Debeku hori daukazu-nean garbi dago zein den helburua, baina behin hori kenduta zer? Erosotasunean jaustea baino txarragorik ez dago.

♦ **Sarri esan izan da euskara politizatu egia egon dela. Zalantza daukat euskarari karga politikoa kendu behar diogun ala komeni zaigun horri eustea, militantzia aktibo mantendu aldera?**

Itziar: Nik uste dut karga politikoa izan behar duela. Bai euskara eta bai generoa gai pribatuak direla esatea absurdua da, bataren eta bestearen gaineko erabaki politikoek erabat baldintzatzen gaituztelako, gustatu ala ez, onerako edo txarrerako.

Ane: Guztiz ados. Hizkuntzaren inguruan hartzen den erabaki oro erabaki politikoa da, eta ezin zaio karga hori kendu.

Zapaldutako lurra da, baina berriki galdera hau egin zidan ezagun batek. 'Pediatra ona nahi duzu ala euskalduna?'. Ez zaizue iruditzen sarriegi jausten garela tranpan euskaldunok?

Ane: Bai, zalantzarik gabe. Oso erraz sartzen digute saria. Hori irain bat da profesional euskaldunarentzat. Oso barneratuta daukagu, baina, diskurtso hori eta deseraiki egin behar dugu. Gure eskubideak urratzen ari zaizkigu eta oraindik halakoetan tratatzen gara.

Itziar: Nik pediatra euskalduna eta ona nahi dut, eta hori da Osakidetza exijitzen diodana. Esan beharra egotea ere... gogorra da gero! Bateraga-

“Euskara eta genero kontuak gai pribatuak direla esatea absurdua da, haien gaineko erabaki politikoek erabat baldintzatzen gaituztelako”

rriak dira, kontrakoa sinistarazi nahi badigute ere. Ikaragarria iruditzen zait oraindik horrelakoekin ibiltzea. Sinestezina.

Izan daiteke euskaltzale, feminista izan gabe? eta, alderantziz?

Itziar: Esango nuke ezin dela euskaltzale izan feminista izan gabe, baina alderantziz, esango nuke, zoritxarrez, baietz: izan daitekeela feminista, euskaltzale izan gabe. Nire buruan ez da kabitzen halakorik, egia esan, baina diot, beharbada, ezagutzen ditudalako halako asko. Teorizazio mailan, bai, badira, baina praktikan, ez. Aste honetan bertan izan dut eztabaida gai honenkin. “Inor ez da ilegala” leloa aukeratu genuen kanpaina baterako, baina batzuek -emakume feministak guztiak- esan zuten erdaraz ere jarri behar genuela. Baina, nola? ‘Inor ez da ilegala’ denek ulertzen badute hemen!

Ane: Niretzat, zoritxarrez, biak dira posible. Logikak esaten du biak klase zapalduak izanda errazago ulertu behar harko luketela ondokoak bizi duen zapalkuntza, baina ez, errealitatean, praktikan, ez da hori gertatzen.

Itziar: Beharbada arrazoia daukazu, Ane. Teorian ulertzen zaila behar lukeen hori gertatzen da errealitatean. Hara! Begira nolakoak diren kontuak. Feminista emakumeak neuzkan buruan galdera egin duzunean eta elkarrizketa osoan zehar, baina jakina, gizonezko feministak ere badaude, eta zorionez, gero eta gehiago dira, gainera, euren maskulinitatea errebisatzen ari direnak.

Bi belaunalditakoak zarete. Aneren adinekoen lekuan jarrita, zu, Itziar, bide urratzaile. Elkarrengandik zer ikasi duzue? Gertu ala urruti sentitu zarete bata bestearrengandik?

Itziar: Bi belaunaldi? Nork esan dizu hori? Hiru bai gutxienez! Niretzat oso positiboa izan da zuekin gaur hemen batzea. Are, hunkigarria ere izan dela esango nuke. Ane ikusi dudanean, pentsatu dut: ‘Ene, bai gaztea’, baina behala jabetu naiz feminismoaren teorian oso gertu gaudela elkarrengandik, eta asko dugula elkarrengandik ikasteko eta elkarrekin egiteko. Beharbada oso teorikoki zegoen elkarrizketa planteatuta. Joango baginen kasu praktikoetara kontraesanak agerikoak izango lirakeelakoan nago.

Ane: Gertu. Feminismoak hori dauka gauza ona. Adin, klase eta jatorri ezberdineko emakumeek oso gure sentitzen ditugula printzipio batzuk eta horrek elkartzen edo gerturatzen gaituela.

Kontraesanak aipatu dituzu, Itziar. Adibidez?

Itziar: Ni asko ibiltzen naiz ni baino gazteagoekin eta konturatzen naiz teoria oso barneratuta duten arren, sarri jausten direla, baina normala da, bizitza eskarmentuak ere derrigor izan behar du eragina halakoetan, eta jakina, gu zaharragoak ere bagarenez, eskarmentu handiagoa pilatu dugu. Baina, maitasun erromantikoaren gaian, adibidez, oso agerikoa da hori. Maitasun erromantikoa kaltegarria dela diote -eta bada-, eta diskurtsoa oso ondo ikasi dute, baina gero ikusten ditut oso harrapatuta gupil horretan. Eta guk horri eman diogu buelta. Baina, bai, gaur ere asko ikasi dugu elkarrengandik. Galderei erantzun behar honek berak pentsarazi egiten digu eta baita geure kontraesanak bistaratu ere, eta hori beti da ona ikasteko. Zalantzarik ez duenak, nekez egingo du aurera.

69 argazki aurkeztu dituzte 2018ko egutegia osatzeko lehiaketara



Arg.: Guritze Ariznabarreta

Elgoibarko Udalaren 2018ko egutegia osatzeko lehiaketan hemezortzi herritarrek parte hartu dute, eta guztira, 69 argazki aurkeztu dituzte. Aurtengo gaia *Elgoibarko Merkataritza eta Ostalaritza* izan da. Hauek izan dira saritukoak: Julen Ansola, Guritze Ariznabarreta (3 argazki saritu), Eulogio Mancebo (2 argazki saritu), Maria Exposito (3 argazki saritu), Oier Ramos (2 argazki saritu), Imanol Cerdeira eta Aitor Zabala.

Marrakzi lehiaketan ikastolako eta Herri Eskolako LH5eko 129 ikaslek parte hartu dute, eta ondorengoak izan dira irabazleak: Ane Calleja, Ivania Alvarado, Mara Castañares, Aiyana Ibañez, Geraldine Franco, Omaira Laroub, Maite Uranga, Nahia Meabebasterretxea, Elena Amaro, Ane Iriondo, Maria Ferrandez eta Jon Martin. Abenduaren 13an aurkeztuko dute egutegia, 19:30ean, Kultur Etxeko sotoan, eta bertan banatuko dituzte sariak.

'Jenisjoplin' liburua aurkeztu du Uxue Alberdik, Unai Villenak eta Amorantek lagunduta

Urriaren 6an kaleratu zuen Uxue Alberdik *Jenisjoplin* nobela, eta joan zen astean aurkeztu zuen liburua Elgoibarren. Pitxitxu dendan egin zuten aurkezpena. Unai Villenak gidatu zuen saioa, eta Amorantek jarri zion musika ekitaldiari. Uxue Alberdik kontatu zituen liburuaren nondik norakoak: Nagore Vargas da nobelako protagonista eta kontalaria, baldintza makurrei aurre eginez zaildutako neska, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzera ohitutakoa.



Kiribil gaur arratsaldean Maalako parkean

Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoaren baitan, saioa antolatu du Elgoibarko Izarrak gaurko. 17:30ean izango da, Maalako parkean. Kiribilek eta bere lagunak haurrei eta euren gurasoei bertsolaritza zer den azalduko diete. Bertsoekin jolastuko dute, eta bertsolari txiki handiak ezagutzeko aukera izango dute.

Ipuin kontalari musikatua, Mendaron

Amaia Elizagoien ipuin kontalariak *Amatxiren istorioak* kontatuko ditu, gitarra jole batez lagunduta. Ezohiko amona baten istorioak dira. Munduan zehar bidaiatzen dabilen amona da, eta astero bere bilobei munduko hamaika istorio kontatuz gutunak idazten dizkie. Istorio horietan hainbat balore landuko dira: laguntasuna, bakardadea, berdintasuna, gezurrak, mitologia, eta beste hainbat, euskal kanta tradizionalekin lagunduta. Publikoarekin hartueman zuzena izango du ipuinkontalariak uneoro, eta ipuinean barneratzeko aukera eskainiko zaie ikusleei. Azaroaren 9an izango da, 18:30ean, Mendaroko Udal Liburutegian.

Arimen Gaua, martitzenean, Mendaron

Arimen Gaua antolatu dute Mendaroko Ludotekak eta Arno Guraso elkar-teak martitzenerako, Udalaren laguntzaz. Herriko Enparantzan izango da jaia. 17:30etik aurrera eskulanak egingo dituzte umeekin eta aurpegia margotzeko aukera ere egongo da. 19:00etan, bestalde, disko festa hasiko da.

Elgoibarko artisauen feria izango da bihar Maalako parkean

Elgoibarko artisauen azoka antolatu du Kultura Sailak biharko, eta horren barruan, ArTalde artisauek hamar kidek euren eskulanak jarriko dituzte salgai. Mota askotariko eskulan eta artelanak ikusi eta erosteko aukera egongo da. Maalako parkean izango da, 10:30etik aurrera. Aurtengo edizioan ondorengoek hartuko dute parte: Magi bitxiak (harri naturalekin eginiko bitxiak. Lepoko, belarritako eta pultserak), BitxiBiziBitxi (alanbrez eta bolekin egindako bitxiak, bereziki, belarritakoak eta brotzeak), Bitxibitxi (material birziklatuekin eskuz egindako bitxi eta osagarriak), Xabier Isasti (egurrean landutako lanak), Zu+ni (ohialekin eginiko haurrentzako osagarriak, motxilak, mantak, baberoak...), Xarlem Creations (bisuteria, poltsak, tokadoak eta neskentzako beste hainbat osagarri), Darama (zilarrezko bitxiak), Emilia Nogales (koadroak, erlojuak, zintzilarioak eta eskuz margotutako



beste hainbat osagarri), Ana Mosacula (xaboi eta kosmetika naturala, olio eta produktu ekologikoekin eginikoak), Enara Gorostiza (ohial gaineko pintura).

Perretxiko jardunaldiak antolatu ditu Karakate Mikologia elkarteak datozen egunetarako

Atzo hasi ziren Karakate Mikologia Elkarteak antolatutako jardunaldiak, Ignacio Mugertzak eskaini zuen hizaldiarekin. *Perretxikoen marra gorria* izenburupean, perretxikoen arriskuei buruz hitz egin zuen Karakate elkarteak. Datozen egunetarako ere, perretxikoekin lotutako hainbat ekintza antolatu dituzte: Bihar arratsaldean Aranzadi elkartearekin sailkatuko dituzte perretxikoak, eta domekan erakusketa egingo dute, Kultur Etxeko sotoan. Astelehenean Ikastolako eta Herri Eskolako umeekin bisita gidatuak egingo dituzte erakusketan zehar, eta azaroaren 5ean, Morkaiko mendizale elkartearekin kideekin irteera mikologikoa egingo dute. San Roke ingurura abiatuko dira, eta bidean aurkitzen dituzten perretxikoei buruzko azalpenak jasoko dituzte.

'Idiot Txou' ikuskizuna taularatuko dute gaur, Elgoibarko Herriko Antzokian

Ados Teatroak *Idiot Txou* ikuskizuna taularatuko du gaur iluntzean, Elgoibarko Herriko Antzokian, gaztelaniaz. Garbi Losadak idatzi eta zuzendutako obra da, eta gaurkotasanaren umorezko analisia egiten du. Asier Hormaza, Dorleta Urretabizkaia eta Josean Goikoetxea dira aktore protagonistak. Bi esatarik eta teknikari batek zuzeneko irratia egingo dute antzokitik zuzenean. Irratsaioak audientzia arazo larriak ditu: jende gutxi entzuten du, eta entzuleek apenas deitzen duten irratiara, baina hala eta guztiz ere, audientzia lortu eta kaleratzea saihestuko dute protagonistek. 20:30ean hasiko da antzerkia.

'Handia' filman parte hartu dute Haritz dantza taldeko hainbat dantzarik



Kezka, Haritz eta Argia dantza taldeetako zenbait dantzarik *Handia* filman parte hartu dute, zehatzago esateko, ezteietan, bazkalosteko dantzaldian. 1847. urte inguruan kokatzen da eszena, eta beraz, garai hartako ezaugarriak kontuan hartu zituzten

xehtasun txikienetan ere. Doinuak, dantzak, dantzakera, janzkera, musikarien tresnak... Beizamako Lete baserrian grabatu zuten.

Jon Garaño eta Aitor Arregik zuzendu dute *Handia* filma. Atzoko *Handia* ezizenez ezaguna zen Migel Joakin Eleizegiren (1818-1861) benetako historian oinarritu dira. Lehen Karlistaldian borrokatu ostean, Martin etxera itzuliko da, eta ikusiko du bere anaia Joakin ohikoa baino askoz ere handiagoa dela. Mundu osoak Lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izango duela, bi anaiek bidaia luze bati ekingo diote, Europan zehar. Eneko Sagardoi aktorea da protagonista, eta harekin batera beste hainbatek osatzen dute aktore taldea: Joseba Usabiaga, Ramon Agirre, Iñigo Aranburu, Aia Kruse eta Iñigo Azpitarte.

“Ikastarora etortzen denak papera egiten ikasiko du, eta gainera, papera egingo du”

▶ JUAN MANUEL BARBE PAPERGILEA

Egur Arte Eskolak antolatuta, papergintza ikastaroa eskainiko du bihar Juan Manuel Barbe papergileak. Villabonakoa da bera, eta Tolosako Ingeniarien Paper Eskolan egin zituen ikasketak. Gaur egun papera egiteko tailer propioa dauka. Papera artisauek erara egiten du, eta horixe irakatsiko du biharko saioan. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da ikastaroa, Merkatu Plazako lehen solairuan.

- AINHOA ANDONEGI -



♦ Zer eskainiko duzu ikastaroan?

Bi paper mota egiten ikasiko dugu. Landareak erabiliko ditugu paperak egiteko. Goizeko saioan asiar jatorriko landare bat erabiliko dugu; mitsumata. Japonian eta Butanen asko erabiltzen da landare hau. Arratsaldean, berriz, espartoa erabiliko dugu. Edozein landare balioko du papera egiteko, baina landare guztiak ez dituzte erraztasun berberak eskaintzen. Mitsumata erraz manipulatu daiteke eskuz, eta espartoa ere etxeko irabiagailu batekin landu daiteke. Eskuz egingo dugu papergintzaren prozesu guztia, gustatzen zaidalako gero bakoitzak bere etxean egiteko aukera izatea. Ikastarora etortzen denak papera egiten ikasiko du, eta gainera, papera egingo du. Bakoitza bere paperekin joango da etxera. Tailer praktikoa izango da erabat. Papera nola egiten den ikusten dutenak harriritu geratzen dira beti, ezer ez egotetik paper orri bat ateratzen delako.

♦ Zein da papera egiteko prozesua?

Lehenengo lehengaiak prestatu behar da. Mitsumata egosi egin behar da lehenik, ordu eta erdi inguru. Gero ur askorekin garbitu behar da, eta ondoren,

irabiatu. Zuntzak irabiatuta eta lehortuta daudenean orriak berehala irteten dira. Lehortzen utzi behar da gero, eta erabiltzeko moduan geratuko litzateke.

♦ Nondik datorkizu papergintzarako zaletasuna?

Ez da zaletasuna soilik; papergintza nire lanbidea eta pasioa da. Tolosako Ingeniarien Paper Eskolan egin nituen ikasketak, eta bukatu bezain pronto papergintzan hasi nintzen lanean. Katalunian eman nituen urte asko lanean, gero Hernaniko Zikuñaga papertegian ibili nintzen eta azken urteotan nire tailer propioa daukat, Asturiasen. Gaur egun ez gara asko papera modu tradizionalan egiten dugunak. Ekialdeko herrialdeetan mantendu dute tradizioa, baina bestela papergintza industrialan egiten da gehienbat. Nik aurten liburu bat argitaratu dut papera landareekin nola egiten den azaltzeko.

♦ Gaur egungo gizarte digitalean, zein leku dauka paperak?

Nik artistentzako egiten dut lan, bereziki. Jende multzo mugatuarentzat egiten dut lan, eta paper artisauek kuantitate txikitik ekoizten dit. Inpresoretatik edo fotokopiagailuetatik irteten den paper guztia,

papera industrialak da, kuantitate handitan egiten dena. Nik egiten dudana papera eskulanetarako erabiltzen da; kaligrafiarako, akuarelaz margotzeko, marrazketa, serigrafia... Une honetan, adibidez, Zumetarentzat paper bat egiten ari naiz. Artistak dira nire bezeroak. Paper berezia da, eta lan bereziak egiteko erabiltzen da. Madrildigo editore batek, esaterako, bananarekin eginiko 40 paper eskatu dizkit, eta berak 40 obra egingo ditu Parisko feria baterako. Obra horiek garestiak izango dira, jakina. Azken batean, eskuz egiten dugun papera ez da merkea izaten, bereziki, Ekialdetik ekarritako landareekin egiten diren paperak.

♦ Munduan zehar bidaiatu duzu honi esker. Non ibili zara?

Nepalen eta Butanen izan naiz. Japoniara joateko nintzen, baina justu orduantxe gertatu zen Fukushimako istripua eta oraindik ez naiz iritsi. Marokon ere izan naiz, eta papergintza tailer bat erakitzeko lagundu nien hango lagun batzuei, Nikaraguan ere bai... Gaur egun Internetez lortzen ditut landare guztiak. Papergintzarena mundu txikia da, eta nire hornitzaile guztiak ezagutzen ditut.

Bertso-bazkari literarioak itxiko du bihar euskalgintza eta feminismoari buruzko zikloa



Ainhoa Mendibil, Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre, asteazkenean.

Feminismoa eta euskalgintza elkarri begira jarri ditu Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun sailek antolatatu duten *Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta* zikloak. Asteazkenean, izan zen zikloko azken solasaldia. Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre kazetari eta antropologoek *Izan zaitezke euskaltzale feminista izan gabe?* galderari erantzun zioten, Ainhoa Mendibil kazetari elgoibartarrak gidatutako saioan. Azaldu zuten norbanako zapaldu bakoitzak, kolektibo zapaldu bakoitzak, lanak izaten dituela horren kontzientzia hartzeko, baina aldi berean, behin kontzientzia hartuta, errazagoa zaiola, edo gutxienez hala behar lukeela, hegemoniatik kanpo dauden gainerako bazterrekoekin enpatizatzeke. Luze aritu ziren feminismoak euskalgintzari egin diezaiokeen ekarpenaz eta horren harira esan zuten, feminismoak landutako jabetasuna, boteretez eta aurre egiteko bideetatik baduela zer ikasia euskalgintzak. Feminismoak demokrazia demokratizatzeke bidea errazten duela nabarmendu zuten. BARRENEK zuzenean eskaini zuen hitzaldia, eta interesa duenak www.barren.eus webgunean dauka hitzaldi osoa ikusgai.

Joan zen ostiralean, berriz, La Basu eta Aneuria rap abeslariak eta Raquel Koroma dantzariak Rap Ibiltaria eskaini zuten Elgoibarko kaleetan eta izugarriko giroa sortu zuten. **Bideoa eta argazkiak ikusteko: www.barren.eus.**

Bertso bazkari-literarioa, bihar

Bertso bazkari-literarioarekin emango zaio azkena aurtengo zikloari, bihar, urriaren 28an. Danele Sarriguarte idazle elgoibartarrak gidatuko du saioa eta hiru bertsolari arituko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Nerea Ibartzabal. 14:00etan izango da, Txarriduna hoteleko hall-ean



'Alizia lurralde miresgarrian', domekan, Herriko Antzokian

Lewis Carrollen *Alizia lurralde miresgarrian* ipuinaren haur antzerkirako moldaketa aurkeztuko du Glu Gluk domekan, Herriko Antzokian. Ipuin klasikoetik abiatuta ikastearen beharraz arituko da antzezlanak. Kantu eta dantzekin girotuta, Aliziak hainbat pertsonaia xeble eta dibertigarri ezagutuko ditu, eta haiei esker konturatuko da, eskolan erakusten dioten bezala, matematika, ingurumena, elikadura eta hizkuntzak ikasteak sekulako onurak ematen dizkigula. 16:30ean hasiko da emanaldia.

Cabezafuegok kontzertua eskainiko du gaur zortzi, Kultur Etxeko sotoan

Sinusek antolatuta, kontzertua eskainiko du Cabezafuegok gaur zortzi, Kultur Etxeko sotoan. Iñigo Cabezafuego ezaguna da Euskal Herriko musika eszenan. Mermaid, Basque Country Pharaons, Royal Canal, Black Lagun, Bizardunak eta Los Separatistas taldeen sortzaile izateaz gain, Half Foot Outside, Jugos Lixiviados zein Atom Rhumba taldeetako kidea ere izan da. 2014an, bide propioa egitea erabaki zuen Cabezafuego izenpean. Lehenengo *Camina conmigo* kaleratu zuen; eta orain ColorHIts izeneko bere estudioan *Somos droga* izeneko lan luzea ekoiztu du. Komikilari askoren lanez osatutako liburu batean dator, eta askotariko musika estiloak batzen ditu. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarre-rak 3 euro balioko ditu.



Morkaikoren mendi emanaldien zikloa azaroaren 2an hasiko da

Morkaiko Mendizale Elkartek 2017ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloaren egitaraua eza-gutzera eman du. Azaroaren 2an, eguena, izango da lehen emanaldia. Erlantz Gonzalez anoetarrak *Peru, hirutik bat* ikusentzunezkoa eskainiko du Lanbroa tabernan, 21:30etik aurrera. Hiru mendi eskalatzeko saiakerak egin zituzten Mendikate Zurian eta Alpamayo mendira eginikoa lortu zuten gauzatzea, hortik izenburua. Morkaikoko arduradunek nabarmendu dutenez, ahalik eta programa zabal, interesgarri eta erakargarriena osatzen saiatu dira aurten ere. Bost saio edo emanaldik osatzen dute 2016ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa. Azaroaren 2an izango da aurrenekoa eta azaroaren 30ean azkena. Iaz hasitako bidetik, Bilboko Mendi Film Festival entzute-tsua eskaintzen duen Mendi Tour ekitaldia eskainiko dute aurten ere Herriko Antzokian, azaroaren 9an. Bost film labur eskainiko dituzte, eta *Incognita Patagonia* izango da horietako bat, Eñaut Izagirre elgoibartarrak zuzendutako filma, Patagonian egin zuten espedizio abentura jasotzen duena.

Elgoibarko Lagun Taldeak egoitza inauguratu du, Mintxetan

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak joan den zapatuan inauguratu zuen ofizialki Mintxeta kirol guneko sarreran duten egoitza. Lagun Taldeko presidente Tomas Salegik hartu zuen hitza lehenik, eta Elgoibarko Udalarik eskerrak eman zizkion egoitza berria eraiki izanagatik. Taldeko babes-



leak eta kide guztiak ere gogora ekarri zituen Salegik. Zuzendaritzako kide Juan Ramon Bellonek egin zuen berba gero, eta Salegik berak eta Felipe Callejak urte askoan klubaren alde egindako lana goraiatu zuen. Egindako lanaren aitortza egin ostean, orogarri bana eta txapelak oparitu zizkieten Salegiri eta Callejari. Ondoren, aurrekoa dantzatu zuten dantzariak, eta Benantxio Otaegi parrokoak instalazio berria bedeinkatu zuen gero. Eraikinak 75 metro koadro ditu, eta, besteak beste, 35 bizikleta eta 70 gorpil gordetzeko lekua du.

Angel Ibarluzea bolaria hirugarren Asola Berrin

Eibarko Asola Berriko bolatokian jokatu zuten aurreko zapatuan Euskadiko 28. Hiru Txirlo Txapelketako hirugarren jardunaldia. Guztira 53 bolarik parte hartu zuten, eta etxeko bolariak izan ziren onenak. Asola Berri taldeko Jagoba Gonzalok irabazi zuen jartialdia, bost txirlo botata, eta Ganix Rodriguez taldekideak eskuratu zuen bigarren postua, lau txirlorekin. Bi eibartarren atzetik sailkatu zen Angel Ibarluzea elgoibartarra. San Migel taldeko bolariak lau txirlo bota zituen.

Euskadiko txapelketako laugarren eta azken jardunaldia Iruzubietako (Bolibar) bolatokian jokatuko dute zapatu honetan, urriaren 28an, 17:00etatik aurrera.

Lehen mailan jokatu duten futbolari emakumezko elgoibartarrei, gorazarre



Club Deportivo Elgoibarren mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan, lehen mailan futboleko jokatu duten sei emakume elgoibartar omenduko dituzte domeka honetan, hilaren 29an, Mintxetan. Honako hauek dira omenaldia jasoko duten sei emakumeak: Yolanda Mateos, Itziar Gurrutxaga, Eli Ibarra, Evelyn Santos, Oihana Chico eta Nagore Lueches. 12:15ean izango da omenaldia eta 12:30ean, lagunarteko partida jokatuko dute C.D. Elgoibarreko eta Bergarako nesken taldeek. C.D. Elgoibarren Futbol Eskolan izena eman duten neskekin osatu duten taldeak (argazkian) jokatu du partida hori.

Gaur jokatu dute bikote mistoen pala txapelketako finala



Elgoibarko Bikote Mistoena Pala Txapelketako finala jokatu dute gaur Kalegoen plaza frontoian, 18:00etatik aurrera. Errifaren zozketa egingo dute lehenik, 18:15 inguruan, eta aurrekoa dantzatu ostean hasiko da finala. Hamasei bikote lehiatu dira lagunak Pilota Eskolak antolatutako txapelketaren laugarren edizioan. Lehen fasean bi multzotan banatuta jokatu zuten elkarren aurka, eta lau bikoterik onenek jokatu zituzten final-haurdenetako kanporaketak astelehenean. Finalerdiak, berriz, eguen arratsaldean jokatu zituzten.

Emaitzak

FUTBOLA

Antzuola 1 - Haundi 0
 Elgoibar 1 Ilintxa 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 3 - Aretxabaleta 4 (Oho. jub.)
 Zestoa 1 - Elgoibar 0 (Jub. 1. maila)
 Bergara 3 - Elgoibar 3 (Oho. kad.)
 Bergara 2 - Elgoibar 1 (Kad. 1.maila)
 Elgoibar 0 - Bergara 3 (Oho. inf.)
 Beasain 5 - Elgoibar 3 (Inf. Txiki)

ESKUBALOIA

Berango 24 - Lauko Elg. 28 (Senior emak.)
 Alcorta F.G. 15 - Anaitasuna 24 (Senior giz.)
 Orioko 18 - Salento Elg. 21 (Sen. giz.)
 Tecnifuelle 21 - Ereintza 19 (Jub. nes.)
 Indupime Basauri 24 - Deca Elg. 37 (Jub. mut.)
 Tolosa 24 - Astigarraga GYS Elg. 27 (Jub. ns.)
 Amenabar Zarautz 21 - Beristain 25 (Jub. mut.)
 Arilan Elg. 18 - Ereintza 16 (Kad. nes.)
 Basauri 32 - Urkunde Elg. 29 (Kad. mut.)
 Urnieta 30 - Cometel-Dario Bus 16 (Kad. nes.)
 Leizaran 34 - Bankoa Elg. 25 (Kad. mut.)
 Bacalaos Alkorta 32 - Egia 21 (Inf. nes.)
 Zarautz 28 - Hotel Txarriduna 23 (Inf. mut.)
 Pneumax 20 - Ordizia 21 (Inf. nes.)
 Zubacor 18 - Urola 31 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28
 10:00 Elgoibar - Amaiak Bat (Inf. Txiki)
 12:00 Elgoibar - Burumendi (Oho. Kad.)
 16:30 Haundi - Soraluze
 Domeka, 29
 12:30 Elgoibar - Bergara (neskak)
 16:00 Elgoibar - Urki (Kad. 1. maila)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 28
 10:00 Modeltek - Pulpo (Inf. nes.)
 11:15 Cometel-Dario Bus - Tolosa (Kad. nes.)
 12:45 Astigarraga GYS - Ordizia (Jub. nes.)
 16:00 Salento - Arrasate (Senior giz.)
 17:30 Lauko - Quiron Askartza (Sen. emak.)
 19:00 Beristain - Saieko (Jub. mut.)
 Domeka, 29
 10:00 Urkunde - Urdaibai (Kad. mut.)
 11:30 Deca - Urdaibai (Jub. mut.)
 13:00 Bankoa - Pulpo (Kad. mut.)

(IMH Kiroldegian)

Domeka, 29
 11:30 H. Txarriduna - Eibar B (Inf. mut.)

LANA..... Eskaerak

ADinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gida baimena dut.
☎ 631 343 232

Adinekoak zaindu eta etxeko garbiketak egingo nituzke. Orduka.
☎ 664 357 381

Adinekoak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest nago. Arratsaldez eta gauzez.
☎ 632 898 972

Sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako prest. Gustura jardungo nuke barerriko lanetan ere. ☎ 640 312 987

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut.
☎ 664 009 315

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut.
☎ 631 115 608

Garbiketak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 640 312 987

Emakumezkoa eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Arratsaldez edo gauzez.
☎ 646 821 678

Garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientzia handia. Adinekoak ere zainduko nituzke. Orduka.
☎ 631 363 056

Neska euskalduna umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. 6:00etatik - 11:00etara.
☎ 617 248 087

Umeak zaintzeko prest nago. Arratsaldez. ☎ 606 612 288

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Ekonomia ikasketak eginda dauzkat.
☎ 632 893 515

Ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ 626 435 491

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 738 823

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.
☎ 688 718 853

Neska gaztea eskaintzen da garbiketak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.
☎ 688 712 075

Adinekoak eta umeak orduka zaintzeko prest nago. ☎ 633 401 678

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka.
☎ 602 047 812

Garbiketa lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 616 457 254

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiten ditut. Orduka.
☎ 602 625 718

Emakume arduratsua eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka.
☎ 688 729 292

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, astezkenetan eta ostiraletan.
☎ 684 318 696

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez edo gauzez. Erreferentziak ditut.
☎ 646 821 678

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 686 077 316

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke, orduka edo interna moduan.
☎ 632 061 103

Eskaintzak

Eibarko jatetxe baterako pertsona euskalduna behar da, jangela eta barrarako. Bidali CV-a iansola@telefonica.net epostara.

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska bat behar da lehenbailehen. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

Bi umeri klase partikularrik emateko pertsona behar da, Mendaron. Fisika, kimika eta matematika.
☎ 616 887 813

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza alokagai Deban, abendutik uztaileara arte. Egoera onean eta ondo kokatua. Oso prezio interesgarria.
☎ 669 339 529

Apartamentu bat alokatzen dut, San Roke kalean. Logela bakarrekoa. Pertsona bakarra edo bikote batentzat aproposa. ☎ 679 866 923

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

GARAJE ETA LOKALAK.....

Garaje itxia saldu edo alokatzen da. 103 m². 4,10 metroko altuera. Igelseritza edo margoketa biltegi moduan erabiltzeko egokia. Baita autokarabanak gordetzeko ere. Olasope inguruan. Arratsaldez deitu.
☎ 661 827 292

BESTELAKOAK.....

Gazteentzako logela salgai, osorik edo zatika.
☎ 943 742 596 - 659 539 862

Ene Bada dendako poltsa bat ahaztuenen zapatuan Ubitarte inguruko banko batean, erropa erosi berriekin.
☎ 679 703 248

Mendiko bizikleta salgai, ez dudalako erabiltzen.
☎ 660 933 887

La Union Elkarteko bazkide-akzioa salgai. Baldintza ezin hobekia.
☎ 679 578 115

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Elkartea Administratzaileen Lanakiteko Erakundea



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure garaje komunitatean atzeko marra bikoiztua duten zenbait garaje daude. Jabeak atzeko marra margotu du berri, zehaztuta zegoena baino garaje handiagoa saldu diotela argudiatuta eta, orain, plaza hori bazterreko hormaraino iristen da. Jakin nahiko nuke zer egin dezakegun egoera horren aurrean.

Batzuetan, garaje-plazaren azalera ez da kontratuan edo salerosketa eskriturretan zehaztutakoarekin bat etortzen. Gerta daiteke, era berean, etxebizitzaren edo beste zenbait elementu komuneren ezaugarriak ez etortzea bat eraikitze proiektuan deskribatzen denarekin.

Etxebizitza zaharretan sarri gertatzen da Jabetza Erregistroan edo eskriturretan esaten dena baino gela gehiago izatea etxeak.

Etxebizitza berrietan, promotorearekin kontratatutako baldintzak ez betetzea litzateke hori. Azalera murrizte horrek eragindako kalte ekonomikoa baloratu behar da, enpresa promotoreari erreklamatzeko.

AHOLKUA: Gutxi batzutan gerta daiteke errealitatea ez etortzea bat kontratuarekin, eta ez betetzea gainera Eratze Tituloan zehaztutakoa. Hori gertatzen da proiektua edo obra-baimena aldatu eta aldaketa hori ez denean Eratze Tituloan eta erregistroan jasotzen. Kasu honek komunitateari eragiten dio bere osotasunean, eta horren ondorioa aztertu beharko da.




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Gorka**, gaur 8 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia-koen partez.



Zorionak, **Naroa**, asteartean, hila-
ren 24an, 9 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familia-ko guztien partez.



Zorionak, **Ibai**, hurrengo astelehe-
nean 13 urte egingo dituzu-
lako. Muxu handi bat familia-ko guz-
tien partez.



Zorionak, **Elia**, zure seigarren urtebetetzean. Mila muxu aitaren eta amaren partez. Asko maite zaitugu.



Gora 77ko kintoak! Zelako ondo pasatu genuen. Izugarriak zarete! Ni prest datorren urtean berriz ere antolatzeko.



Zorionak **gure ponpoxoari**, 6 urte egin ditue-
lako. Patxo bat aitona-amonen eta etxekoen partez, eta bereziki Dunaren partez.



Zorionak, **Janire**, gaur 12 urte bete dituzulako. Etxeko-
en, eta bereziki, Elene eta Sararen partez.



Zorionak, **Ibon**, bihar, zapatua, 6 urte beteko dituzu-
lako! Patxo pila bat etxekoen par-
tez.



Zorionak, **Jakes**, asteartean 10 urte! Ondo pasa, txapeldun! Muxu handi bat familia-
ren partez, bereziki Elene, Markel eta Jonen partez.



IRAZABAL
clínica dental



Ainhoa Zulueta
Odontóloga

Atarabonak eta bulegoak:
8:00etatik 22:00etara
Zerbitzua:
19:00etatik 14:00etara

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIALIZAZIO BEREZIA. Abaratza ekonomiko handiak eta finantziakzio erdi hobekak. GALDETU

IRAZABAL
clínica dental

Julián Eteberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

RPB 183/12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com



ARNETTE BETAURREKO OSOA

Zatoz probatzera!
Galdetu baldintzak!

89€tik hasita
P.V.P. gomendatua



27 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

20:00 Giza katea: Elgoibarko Sarek antolatuta, Ibon Iparragirrenen askatasuna eskatzeko. Maalako parketik Kalegoen plazara.

20:30 Antzerkia: *Idiot txou*. Ados Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

28 ZAPATUA

9:00 Hilabeteko azken zapatuko feria.
- Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da Kalebarren plazan.

- 12:00etan, kale kantariak.

- 12:00etatik 14:00etara, haurrentzako pizza tailerra.

- Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa Aita Agirre plazan.

10:00-14:00 eta 16:00-19:00 Papergintza ikastaroa. Egur Arte Eskolak antolatuta, Juan Manuel Barbe pargileak eskainiko du. Prezioa: 8 euro.

10:30 Elgoibarko eskulanen erakusketa. ArTalde artisauen elkarteak antolatuta, Maalako parkean.

14:00 Bertso-bazkari literarioa, *Euskalgintza eta feminismoa* zikloaren barruan. Danele Sarriugartek gidatuta, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Nerea IBartzabal bertsolariekin. Txarriduna hoteleko hall-ean.

29 DOMEKA

11:00 Perretxiko erakusketa. Karakate mikologia elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

12:15 Omenaldia: Lehen mailan jokatu duten emakumezko elgoibartarrak omenduko dituzte, C.D. Elgoibarren menderrenaren barruan. Mintxetan.

16:30 Antzerkia: *Alizia lurralde miresgarrian*. Glu Glu produkzioak taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

2 EGUENA

21:30 Mendi emanaldia. Morkaikok antolatuta, Erlantz Gonzalezek eskainiko du. Lanbroa tabernan.

3 BARIXAKUA

21:30 Bideo foruma: *La estación de las mujeres*. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua. Cabezafuego. Sinuosen antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

6 ASTELEHENA

18:00 Eulogio Manceboren argazkien erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai, hilaren 13ra arte.


7 MARTITZENA

19:00 Elgoibarko euskararen kale neurketaren emaitzen aurkezpena. Udaleko Euskara Sailak eta Soziolinguistika Klusterrak egingo dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

9 EGUENA

18:00 Gurasoentzako formazioa: Jolasaren garrantzia umearen garapenean. 0-6 eta 6-12 urtekoen gurasoentzat. Kalamua guraso elkarteak, EIGK-k, Arreiturreko eta haurreskolako gurasoek eta Ongizate Sailak antolatuta.

18:00 Ipuin kontalaria: *Amatxiren istorioak*. Xirrikituaren jostunek eskainita, ipuin kontaketa musikatua izango da. 3 urtetik gorakoentzat, Mendaroko Udal Liburutegian.



Jesusa Uriarte Arizmendiarieta

2017ko urriaren 23an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Emakume langile
eta euskalduna
agurtzeko iritsi
denean eguna
zure irri goxoa
zure maitasuna
bihotzean daukagu
eman diguzuna.**



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

27 Barixakua FERNANDEZ
 28 Zapatua YUDEGO
 29 Domeka YUDEGO
 30 Astelehena ORUESAGASTI
 31 Martitzena BARRENETXEA
 1 Eguaztena YUDEGO
 2 Eguena GARITAONANDIA
 3 Barixakua ETXEBERRIA
 4 Zapatua FERNANDEZ
 Goizez: BARRENETXEA
 5 Domeka FERNANDEZ
 6 Astelehena YUDEGO
 7 Martitzena ORUESAGASTI
 8 Eguaztena BARRENETXEA
 9 Eguena IBAÑEZ
 10 Barixakua GARITAONANDIA

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora de-
 nean, asteburuetan izan ezik:
 BARRENETXEA (Elgoibar)
 Errosario, 26 - 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
 San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)

'Handia'

28 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

29 domeka, 19:00

30 astelehena, 21:30

'Blade runner 2049'

3 barixakua, 21:30

4 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

5 domeka, 19:00

6 astelehena, 21:30

'Zikoinak'

5 domeka, 16:30

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, urriak 29an, **03:00etan, ordubetez atzeratu beharko** da ordularia.



I. URTEURRENA

Jesus M^a Ansola Zigorruga

2016ko azaroaren 4an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, azaroak 4,
 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Jose Antonio Arrieta Etxaniz


2016ko urriaren 26an hil zen, 93 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan,
 urriak 28, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
 ez zaitugu inoiz galduko
 gure bihotz barrenean
 eramango zaitugu betiko.**





Manu Sanchez

Unai Villena



Etrepide eta autopista artean harra-
patutako erreka arrea, karreterari
begira bizi diren herrietako erdigu-
neak, etxebizitza tardofrankistak, baseri
sakabanatuak, fabrika eta pabilioi as-
paldi betiko itxiak, indianoen etxe kolo-
nialak, hesi herdoilduz inguratutako palmondodun lorategiak,
higatutako asbestozko uralitak, agortutako meatze zuloak,
joan-
etorriko etorkinek abandonatutako etxe mamuak, iraungitako ame-
tsak, izerdiak jandako bizitzak... Duela hilabete batzuk idatzitako
hitzak dira aurrekoak, Bilbotik Gordexolara autobusez nindoala
lagun batzuenara. Koaderno eskura nuen eta ezerosotasun zi-
miko batek eraginda osatu nuen deskribapena, denboraren tune-
lean barrena atzerantz bidaiari nindoala sentituz, gure
eskualdearen eta haren arteko antzekotasunak irudikatzen nituela.

Duela aste batzuk antzeko sentipena izan nuen Donostiako
Loiola auzoan pasean ari nintzela; berriro ikusten ari nintzen hura
deskribatzeko beharra. *Autobidearekiko paraleloan trenbidea iga-
rotzen da, haren ondorik errepedea, eta trafiko nahaspila latz ho-
rren aurrean daude etxe blokeak: eraikin baxuak, etxabeetan
bezerorik gabeko lokal komertzial abandonatuak dituztenak.*
Oraindik iragan ez den industria hazkunde desarrollista baten az-
tarnak eraginak dira kedarrak belztutako fatxadak, metal ugerra
eta hautsitako porlan gainean hazitako goroldio iharra. Zeru lai-
notu batekin baino bat egiten ez duen paisaia dirudi, ihes hodian
ke toxikoarentzako habitat aproposa, lehenaldiaren zuri-beltzeko
agertokia. Paisaia postindustrialak izan ginenaren ondare eta, era
berean, oraina dira. Euskal Herri berde modernoak versus gris hon-
datua. Pauso arinez aurrerantz doan herria, denboraren tunelaz
bestaldean zer-eta atzean utzitakoak beriz topatzeko.

*“Paisaia postindustrialak izan ginenaren ondare eta,
era berean, oraina dira”*



RENAULT
Passion for life

RENAULT GAURSAN, HILABETE HONETAN AUTOZ ALDATZEN LAGUNTZERA TEMATU GARA.

Etorri eta aukeratu gustukoena.



Renault **MEGANE**

Renault **CAPTUR**

Renault **CLIO**

ESKATU 500€-ko DESKONTUA, EROSTEAN

RENAULT GAURSA. #nosmovemoscontigo

Renault Captur gama berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,6 eta 5,6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 95 eta 127 bitartean.

Renault Clio Berria gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,3 eta 5,6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 85 eta 127 bitartean.

Renault Mégane gama berria: kontsumo mistoa ((l/100km), 3,7 eta 6 bitartean. CO₂ isurla (g/km) 95 eta 134 bitartean.

Eskaintza hau Renault GaurSan da baliagarria, partikular eta autonomoentzat, baldin eta Renault Mégane, Renault Captur edo Renault Kadjar autoa erosten badute, RCI Banque SA Sucursal en España-rekin finantzatzen badute 2017ko irailaren 1etik 30era bitartean, eta edozein markatako ibilgailu bat entregatzen badute Renault berria erosteko. Bame daude zergak, garraltoa, Acción Reprise eta RECSAK eskaintutako promozioak. Finantza beharrek guburueneko zerbituek: 6.000 € Guburueneko epea: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. 500 €-ko balia, autorekin lotutako egungo eskaintzez gainera. Inudian ageri diren modelok: Renault Clio Zen Energy TCe S&S 90cv, pintura metalizatua berezia eta pack look Zen-a, PSP gomendatua: 12.250€. Renault Captur Zen Energy TCe 90, pintura metalizatua, PSP gomendatua: 15.200€. Renault Mégane Zen Energy TCe 97kW (130CV), pintura metalizatua, Full Led-a, Head-up display-a, 46 cm-ko (18") aleazkozko hargunak, Pack Easy Park Assist-a eta 22,1 cm-ko R-link-a (8,7"), PSP gomendatua: 19.348€.

Renault gomendatzen du

renaul.es

GAURSA

Otaola hiribidea, 22. Tel. 943 82 09 74. EIBAR www.gaursa.com

TXANKAKUA

ELGOIBAR 2017 AZAROA

2017/11/30ERA
ARTE BALIO DU

2017

25€
EROSKETA
BONUA



CADUCA EL
30/11/2017

50€

25€
EROSKETA
BONUA



2017

50€-KO EROSKETA 40€-REN TRUKE

Baldintzak:

- Baliagarria 2017/11/02tik 2017/11/30era arte.
- Elgoibarren errolatuta daudenentzat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan beharko da) edo errolatze bakoitzeko.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.

Bonuak azaroaren 2tik 17ra erosi ahal izango dira.

Salmenta:
Merkatu Plazan (agortu arte)
Ordutegia:
9:00-13:00 eta 17:00-19:00



TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIK

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ELGOIBARKO
UDALA

Parte-hartzeko informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943747301 telefono zenbakira.